

# GERNIKAN, MUSIKA BARRIA

Euskalerrri guzti zear sortzen dira egunaro musikalarri barriak: bai musikaegileak, bai abeslariak, gizon, emakume eta taldeak. Erti orretan beti izan bagera ugariak, irauko urteetan, beste itxura batez bada be, musika barriak betetan dabe gure inguru ozena, aide erriko barriak. Telebisioak, gurea be ez balitzake lez, ez dautso gure musika barriari jaramonik be egiten; baiña disko bitartez irratia, orkesta eta abeslariak jaialdiak, darabille gerroago eta geiago gure musika barria.

Gernika be. Euskalerrriko dan ezker, mobimentu orretan dabil gaurkotuta. Bittor Egurrola, abeslari trebea, eta Naikari, orkestra ez-titsua, azken urteko lorak doguz gure erriko musika arloan. Gaur Naikari-en barriak doguz; urrengo baten ekarriko dogu gure artera Egurrola abeslaria.

Lau dira Naikari taldeko musikalarriak: Faustino Arrieta, zuzendari eta organularia; Jabier Zamudio, abeslari eta kitarraria; Juan Jose Artetxe, sasofoi eta bateri jotzailea, eta Anjel Urkieta, tutura eta bateri jotzailea. Laurak gernikarrak, gazte eta, bear dan lez urratuta.

Urte bete be ez daroe arazo onetan: aurtengo Jorraitak 14, asi ziran Gernikako Frontoi ederrean eta ordutik ona or dabiz, atsegin barik, batera ta bestera euren soñu eta joikiakaz.

—Zer, Faustino? Zer dala ta eres talde au?

—Ba, Gernikan be beste lekutan legez, musika barri giroa bitzutearren. Eta, bear bada, urlo onetan be Gernikaren izena zabaltzearren. Edozein erriak daukaz bear abeslari edo orkestak, eta gu, lol

—Eta asmo ori betetan dozue bai?

—Orretan gabiz. Orretarako batur giñan lau lagunok. Artetxe ta Urkieta erriko Bandan eratuak maixu

on bategaz: Pablo de la Cruz, Banda orren zuzendaria aldi baten Rafael Frünbeck eta Rajael Castro-ren irakaslea Zamudio Gernikako Orfeon aninat abestuta, eta ni, ba... pianu karreraren ezia.

Aspalditik dotaz onek lagunak, bai musika arloan, bai ostantzean be. Arrieta pianulari ospetsua da; ainbat erestaldi emon ditu joiki orrezag. 1965-an Bilbon antolatu zan "Mañana serán famosos" txapelketan berak egiñiko "Atalak" ereslanagaz txapeldun autatu eben

ao batez epailleak. Beste bere ereslan batzuk be orain ezagutuak dira Naikari talde onek zabaldu ditu ta. Egurrolak jarritako itzak musikatu ditu Arrieta: "Esaiozu" eta "Urrez ko sasoi".

—Erri-musikak be badabilguz gure eresortan: Azkuek Ainhoan, Hasparrenen eta Azkainen bildu eban "Ala baita" eta gero Guridik bere "Amar euskal eres" etan orkestatu eban "Amorosa" ritmo barriagaz abestuten dau gure Zamudioak.

Onek, Jabier Zamudio, jarri dautsoz Arrietari erdal itz batzuk, beste abestiak sortzeako: "Desilusión", "Vuelve a mí" eta abar.

—Euskal gogorik, bai?

—Gerrogo eta geiago. Donetari-koak abestu bearrean gazog ondiño; baiña euskal abestiak dauken mamiña da benetan berezia. Abendu onetan, Euskal Jaialdi bira daituak gara: Gernikan eta Bilbon.

Ea ba. Jarraitu bide ortatik. Gerrogo eta zabalako eta sakonagoa izan ditela zuek eraite dozuen arloan.

JOSE ANTONIO ARANA



## I EUSKAL SHOW

Hil honek 17, Durangoko Astarloa saloian jai nagusi bat ospatu da. Jende gehiegi ez zegoen, ordu berean Yurretan moto-cross korritzen baizan. Astarloa barruan, gazte jende, mutil ta neska; ta ez hain gazteak ere ez ziran falta. Euskal kantu zaletasuna ez da gazteen monopolioa, ikusten danez.

Kantarien presentatzaile bi bertsolari: LOPATEGI ta AZPILLAGA. Ba dakigu zabaltzen dijoala aurkeztera hau, ta ginstatzen zaigu Jendearan aurrera lehenengo atera ziranak PAIKOAK izan ziran, Elorrieko talde bat. Beren kantuak oso txalotuak izan ziran. Jendeak ba daki saritzen; jende horrek ez zekiana zan behar bada azkenengo aldiz entzungo ziela. Banandu egin behar dute, haletarik bi herriz aldatu beharrean arkitzen baldira. Bizitzaren legeak...

Gero, JOSEBA SAENZ ORTUONDO, ezagun zaizkigun Saenz analetarik bat. Publikoak bihotz-berotasuna ta txalo-hotsa eskeini zion gogotik. Ta hirugarrenez, MAITE IDIRIN, Atahualpa Yupankiren abestiak kantatuaz. Beteriko esitoa.

Ondoren: OSKARBI. Kategoria du talde honek. Gero ta gorago ikusten dugu, zion Manolo Urbietak, ta hala

bide da. Egunetik egunera hobeagotzen, Luis Romeroen eskua ezagun dahir.

BITTOR EGURROLAK ere kantatu zuan, esito ikaragarriarekin. Ohiala erori ta gero ere bere «fans» ugariak «beste bat, beste bat!» eskatzen zuten.

Talde ye-ye bat ere agertu zan, bada; ondarrutarra. Ba dakizute zein dan: BETI-ALAI. Bost neska, Ondarruko graziaren jabe. Beren lehenengo ta bigarren kantueren artean, CINSAK Las Arenasko Jai-Batzordearen partez, euskal kantueren ABRRAKO I JAIALDIAREN zilarrezko bost medalla eman zizkien ta bandeja eder bat ere bai. Txaloak.

Dato jakingarri bezela esan dezakegu, Euskal Show hontan parte-hartu duten guztien adin-ardia 17'9 dala.

Ezer ez zitekion Jaialdiari falta, Tronperri famatuak, bai dantzatuaz, bai ta farra joaz esku-hartu zuala. Oso ondo bietara. Parte hartu zuten ere, LEON albokariak eta MAURIZIA pandero-jotzaile ta kantariak.

Txaloe baldin bada artixtaren janaria, batekada ederra hartu dutela hango denek, gero!

JOAN MARI TORREALDAY

### Zinema-Klub "Berri"

Izen onekin Donosti-ko gazteen artean zinema-zaleentzat bazkun berri bat sortu da. Asmo eder eta xede oheagorekin, sortu ere. Gazteak baitira eratzalleak eta gazteentzat bazkuna!

Illean lau filma eman nai dituzte. Zein baño zein interesgarriagoak. Zinema-zaleak osoki betetzeko moduzko filmak. Eta ez pelikula utsik. Baita itzaldi, gelgarri, argipen eta abar...

Lenengo filma «Fellini 8½» izango da. Ta onen aurkulari Erroma-ko Zinema-ikastetxean ikasitako Iñaki Arregi trebea izango da.

Bizi luzea ta onurakorra opa diogu donostiar zinema-zale gazteen «Berri» bazkunari.



### MARGO EDERDUN ENZIKLOPEDIA

- Amabost liburu eder erarik errex ta egokienean euskaldun neska-mutil guziek euskeraren bidez ludiko kultura guziaz jabetu ditezten.
- Orain artean agertu diranak: «Biblia guztioi esana», «Afrika», «Landareen mundua» ta «Abereen mundua».
- Egun auetan ez duzute zuen seme-alabentzat erregalo eder ta probetxagarriagorik arkituko.

Txartel au bete ta gure-gana baltzen ba dezu gure liburu auen adierazgarri eder bat jasoko duzu bere berri emanaz.

Izen da abizenak .....

Zuzenbidea .....


Erria .....

Gure zuzenbidea:

Apartado 3.024  
DONOSTIA

S  
I  
G  
M  
A

Elgoibar



Kontuatuak gaude aspaldi Erriko ta erbesteko, Oso itxua bear du batek Au ondo ez ikusteko. Ezkon-berriak bear dutena Bizimoduan asteko, «Sigma» makina josteko. Etxe-bizitza egokia ta

RESTAURANTE

### OR-KONPON

Asarraturik baldin ba-zabiltz...  
OR KONPON!  
Egualdi txarra egiten dula?...  
OR KONPON!  
Kaskarrekoa artu dezula?...  
OR KONPON!  
Umore txarra galtzeko or dezu...  
OR KONPON!  
Jatetxe ortan bazkaldu-eta...  
OR KONPON!!!

Hotel San Sebastián Etxea

Av. Zumalakarregi, 20  
DONOSTIA